

13. Mitxelenaren aitzin euskararen berreraiketa gorago jotzerik ba ote?

Eskura ditugun lekukotasunen bidez, nagusiki testuen bidez, ezagutzen den hizkuntzaren historian atzera egin daiteke, lehenagoko formak (hotsak, morfoak, hitzak...) eta lehenagoko sistemak (sistema fonologikoa, deklinabidea...) nolakoak ziren asmatzen saiatuaz. Horri deitzen zaio “berreraiketa”. Berreraiketa ezin da edonola egin, ahalik eta oinarririk sendoenen gainean baizik. Hortaz, gertakari seguruei eman behar zaie lehentasuna, eta Mitxelenak dioenez, ezer baino lehen histori garaiak eskaintzen dizkigun datuak aurkitu eta aztertu behar dira, haien gainean oinarrituta historiaurrean zer zitekeen asmatzen hasi baino lehenago.

Berreraiketa da hizkuntzalaritza konparatzailearen metodo klasikoa. Familia berekoak diren, hau da, elkarrekin genetikoki lotuta dauden hizkuntzetako forma ezagunak edo dialekto ezberdinetako forma ezagunak erkatzen dira, adibidez, forma horiek guztiak azaltzeko gai den antzinako forma berreraikitzeke. Barneberreraiketean, berriz, hizkuntza bakar batek emandako datuetan oinarrituta egiten da berreraiketa, hizkuntza horren berorren lehenagoko egoera batera iristeko. Barneberreraiketa edozein hizkuntzarekin erabil daitekeen metodoa da, baita familia ezagunekoak direnekin ere (konparaketak argitzen ez dituen kontuetarako, adibidez), baina bereziki emankorra da gurea bezalako hizkuntza bakartuentzat.

Barneberreraiketa hizkuntzaren aldakortasunari buruzko hatsarre garrantzizko batean oinarritzen da: hizkuntz egoera bakoitzak bere baitan gordetzen du lehenagoko hizkuntzaren arrastorik. Hatsarre honen ondorioak sinkroniako txandakatze gisa islatzen dira. Maizenik txandakatzeok morfofonemikoak izaten dira:

- *Ene* irregularra da bere paradigmaren barruan, vs. *nire* erregularra (zure, hire, gure paradigmarekiko analogiaz sortua).

Barneberreraiketak ez digu biderik ematen lehenagoko hizkuntza osoki berreraikitzeke, ez eta hurrik eman ere, baina batzuetan ez dago beste modurik.

- *ene* zaharragoa dela badakigu, baina ez zer adierazten duen, ez osoki behintzat: **en-e*.
- *e-torri*, *i-ibili* eta *joan* aditzen hasierako bokal txandakatzeak **e*- aurrizkia berreraikitzeke bidea eman zion Mitxelenari, txandakatzearen baldintza fonetikoak zehazteko gauza izan baitzen.

Maizenik lehenagoko hizkuntza osoki berreraikitzeke biderik ez izan arren, ez dugu pentsatu behar antzinako kontuak oraingoak baino bakunagoak zirenik. Aitzitik, oso kontuan hartzekoa da historiaren aberastasuna, berreraikitako eskemek nekez isla dezaketena. Honek hamaika arazo sortzen ditu.

Berreraiketa guztiek ahalik eta azkarrenik nahi dute jo, zuzen-zuzen, galdutako garaira. Alabaina, datu historikoen usu erakusten digute benetan gertatu dena konplexuagoa izan dela. Sinplifikazioak saihestea beharrezkoa da, ze adibidez, latinezko

–*ebam*, –*ebas*, –*ebat*-etik gaztelaniako indikatiboko imperfektuaren garapena –*ía*, –*ías*, –*ía* izatetik (1) b> Ø / V_V; (2) e>i/ _a arauak ateratzen baditugu, ez da nahitaez egiazkoa. Izan ere, gaztelania zaharreko tesutetan –*iés*, –*ié*, –*iémos*... formak nagusi dira, eta ezin dira eman diren arauen arabera azaldu.

Honelako sinplifikazioak ugariagoak dira ezezagunagoko edo ikertu gabeko hizkuntzetan. Mitxelenak aipatzen du batuaren hasikinetan, gure artean bazebilela eztabaida bat, *nire* eta *nere*-ren artean zein zen “zuzenagoa” ez ezik, zein zen “zaharragoa”. *Nire*-ren aldekoek argi zeukaten kontua, *nire* formak *ni* pertsona izenordainaren euskarria baitauka. Baina euskalki guztietan badirudi *ene* forma bat izan zela, *neure* forma indartuarekin oposatzen zena. *Nire neure*-ren aldaeretako bat baino ez da. Gaur egun *nire* erabiltzen den lekuetan, beraz, forma zahar bat gorde da, lehengo balio indartua galdu badu ere. *Nire*, ordea, eraketa analogiko moderno bat baino ez da, *ni*-ren gainean eraikia, *i* : *ire*, *gu* : *gure* ereduaren gainean eraikia.

Bestalde, hizkuntzalari historikokek konbentzio bat ezarri dute. Lekukotutako forma eta berreraikia bereizi behar dira. Hala, berreraikiek izartxoak eramango dute noizbait norbaitek agerraldi bat aurkitu arte. Adib.: **ardano*, **bini* baina *ardao* / *ardan(degi)* eta *mi(h)i(n)*. Lehenengo formak bigarren formen etorkitzan izan arte, izartxoarekin idazten dira, haietatik eta haiek azaltzeko atereak direlako.

Berreraikitzen diren formak eta sistemak noizbait existitu direlako konfidantzarekin berreraikitzen dira. Eta, nahiz gehienetan haien egiazkotasuna behin betikoz frogatzeko modurik izango ez dugun, bi ustekabekok frogatu dute metodoak aski seguruak direla. Alde batetik, hititearen seziframenduak Saussurek 1878an egin zuen indoeuroperazko laringalen berreraiketa berretsi zuen. Bestetik, lineal B-ren desziframendua, 1973an Vendreysek egin, greziera arkaiko baten isla da, eta hizkuntza honen historiaurrerako berreraikitako gehiena berretsi zuen. Hori horrela ikusita, bada arrazoirik berreraiketan konfidantza izateko.

Euskara aldatuz joan da (eta doa) eta aldaketa horien historia luza daiteke; orobat, aldaketa ezagun horietan oinarrituz hipotesiak egin daitezke historiaurreko euskaraz. Gainera, ez da egia osoa euskara zeharo bakartuta dagoela. Etorkiaren aldetik bai, baina gainerako hizkuntzekin lotzen da maileguren bitartez, esaterako. Horretarako buruan atxiki behar da konparazioa **kognatuen** artean egiten dela, hots, jatorri berekohizkuntz aldaeren artean, ez nahitaez hizkuntza ahaidetuen artean. Hala, Mitxelenak *Fonética Histórica Vasca*-n erakusten duena azal daiteke. Izan ere, nagusiki latinezko maileguetan oinarrituta, antzinako euskararen sistema fonologiko berreraiki zuen, eta handik gaurko euskarara bitartean gertatu diren hainbat aldaketaren kontu zehatza ere eman. Beraz, genetikoki lotuta dauden hizkuntzen arteko konparaketa galarazita badauka ere, barneberreraiketaq egin daiteke, hots, berak eskaintzen dituen datuetan (maileguetan zein bestelakoetan) oinarritutako berreraikera: *ene* vs. *nire* auzian erabili dugun metodoa, alegia.

Bestalde, Hizkuntzen historiaurreaz jardutean bai “hizkuntza batua”rekin eta baita “aitzinhizkuntza”rekin ere egiten dugu topo. **Hizkuntza batua** izena ematen zaio noizbait banatzen hasi zen hizkuntza bati, familia berekoak diren hizkuntzen ama-hizkuntza edo jatorria denari, hain zuzen. Alabaina, batez ere delako aitzinhizkuntza baten dialekto zatiketa baino lehentxeagoko formari deitzen diogu izen honekin, berreraiki behar den hizkuntza egoerari, berankorrenari.

Aitzinhizkuntza, berriz, berreraikitako edozein hizkuntzari deitzen zaio. Hizkuntza batu zahar batekin kontrajartzen denean, gainera, batez ere berreraiki ahal den hizkuntza egoerarik zaharrenari egiten zaio kasu. Maiz, berreraikitako hizkuntzei “aitzin-x” izena egokitzen zaie: aitzinzelta, aitzingermanikoa..., baita aintzineuskara ere.

Berreraikitako aitzinhizkuntza ez da egiazko hizkuntza bat. Ez dira hizkuntza naturalak, horiekin konparatuta muga jakinak eta batzuetan oso larriak izaten baitituzte: gehienetan ezinezkoa da, esaterako, aldaera lektalak berreraikitzea edota aitzinhizkuntzok datatzea, eta oso maiz hizkuntza atal guztiak berreraikitzea bera ere ezinezkoa da, atal batzuek baitute ondoko hizkuntzetan arrastorik ere utzi. Ezin garai jakin bateko hizkuntza osoa berreraiki: alderdi ezberdinak berreraiki daitezkeenean ere, berreraikitako formak ez dira guztiak garai berekoak izaten, eta batzuetan alde handiak daude kronologian batzuen eta besteen artean. Mitxelenaren aitzineuskararen, esateko moduan, fonologi sistema bakarrik berreraikitzen da. Lakarrarenean, berriz, erro kanonikoa eta gramatikarekin lotutako zenbait alderdi. Alabaina, baliteke bi berreraiketa horien artean milaka urteko aldea egotea kronologian. Hala bada, ez da egiazko bat berreraikitzen, **sistema** ba (edo batzuk) baizik, laborategiko hizkuntza hein handi batean. Berreraiketarako oso laguntza handia da (eta murriztapen garrantzizkoa) sisteman pentsatzea, sistemak mugatzen eta murrizten baitu berreraiki daitekeena, batetik, eta bestetik, sistemak erakusten baitu zein den eredia.

Beraz, Mitxelenaren aitzin euskararen berreraiketa baino gorago nekez joan daiteke, metodologia aldetik, ez baita inoiz aitzin hizkuntza naturalik berreraikitzerik izango, baina bai berreraiki daitezke fonologiatik haratago erro kanonikoa eta gramatikarekin lotutako zenbait alderdi ere, Lakarraren moduan.